

# ARTIFICIOS

SUSANA SOLANO

2023ko irailaren 21a - abenduaren 9a

CarrerasMugica

Badirudi espazio hauetan ikusgai ditugun Susana Solanoren artelanek denboran korapilatzen eta adarkatzen diren bideak urratzen dituztela, garai desberdinetan irekitako bideak, bere ibilbide artistiko luzeko paisaia hedakorra ikusiko bagenu bezala.

«Artificios», horrela izendatu ditu artistak bere artelanak. Latinean jatorria duen hitz honek, hitzez hitz, jada eraikita dagoen arte-objektu esan nahi du, beteta, eginda dagoena; asmakizun desberdinak, zeinei azkenean garaia iritsi zaien, beren materia, beren gauzatze-garaia.

Hizkuntza arruntean, artifizio batek hori baino askoz gehiago iradokitzen du: irudimenaren keinu ludiko eta sentsualetik sortzen diren eta beren energia arrazoirik justifikatu gabe xahutzen edo askatzen duten asmakizunen zigilua darama berekin. Sorkuntza artistikoak bidezko eskubidea du axolagabekeriak jokatzeko, inguruan dugun mundu erabilgarria objektuz hornitzen duen ekoizpen industrialaren konpromisoen aurrean. Gurea bezalako munduan, beharrezkoa ez dena eta alferrikakoa dena ere existitzen da, baina kamuflatuta programatutako premien agindupean.

Artifizioak ereitea izan da garai guztietako artearen poetikak bete duen zeregina. Gaur egun, eguneroko ingurune hutsaleko zaratatik urrun dauden objektu horiekin topo egiteak beharrezko esperientzia ematen digu. Aukera ematen digu ihes egiteko funtzioaren eta baliagarritasunaren, zaharkitze programatuaren eta errutinen menpe dauden gauzen estalki tiranikotik. Artelanen existentziaren arrazoia ordezkatzeko duen kontakizun bat, aitzakia edo argumentu bat espero ez badugu ere, oraindik espero dezakegu errealitatearen esferan ugaria ez den itxaropen hau betetzea: argitaragabea eta helbururik gabea den zerbait ikusteko plazera eta askatasuna, trukean ezer eskatu gabe. Sortutako gauzeekin partekatutako jolasa da, eta edertasunaren funtza ematen digu oraindik: plazer desinteresatua.

Jolas honen erronka onartzen badugu, artifizioak beste nonbait, beren eragin-eremutik kanpo zain dugun bizitza komunitik aldenduta daude, eta ate bat ireki ahal izango diogu ustekabeari. Horrela, badirudi Susana Solanoren erakusketako artelan bakoitzak bere esanahia asmatzen duela

aurreikus daitekeen horretatik urrun, objektu ezagunen logika hertsitik urrun —«Footprints» izeneko altzariekin gertatzen den bezala—. Aurreikusi ezin den esanahi hori kontraesanean dago artistak bere serie batzuei eman dien izenarekin — «Muecas» txikien lanean, kasu—; eta agian zentzu ezezaguna, apenas aipatua, ezkutukoa eta anbigua ematen die, esaterako, bilduta aurkitzea espero ez genituen materialekin egindako lan batzuetan —hala gertatzen da «Encima de una alfombra» lanean—. Artearen iragan sendotuarekin harremana duten zentzuzko jolasak, ironia kritiko batez jantzita —zeinari ez geniokeen uko egin behar—, baina hemen modu tangenzialean azalduta, ez hain esplizitua. Ironia-modu horrek ia ez ditu lanak ukitzen.

Susana Solanok sorkuntzaren bideak zeharkatu ditu, zintzo erantzunez batez ere bere mundu pribatuari, bere galeria sekretuak zeharkatuz. Bere obra bakoitzaren zentzua jakin nahi duenak, behaketaren posizio bakartitik, bere kabuz bilatu beharko du. Egileak ez ditu gakoak argitzen. Sortzeko bidean utzitako pistak ez dira ugariak. Obren sekuentzia lotzen duen haria ere ez da agerikoa, denborarekin eta bizitzarekin, artistaren esperientziarekin, eraldatuz joan baita, ezkutuan zegoen logika bati jarraituz.

Bere lehen eskultura-sorkuntzetako batzuk gogorak, abstraktuak, definituak eta ertz zorrotzekoak dira —horrela agertzen da 1988ko «Montblanquet»—, batzuetan sastakaiak bezain zorrotzak edo diagramak bezain zehatzak —«El lugar donde volví», 1998koa—. Urte batzuk geroago, beste material batzuekin adierazitako beste irudi batzuk sortu ziren, forma harikorragoak eta hauskorragoak eman dituztenak, hala nola «Lo visible II» eta «La negación» izeneko artelanen siluetak. Orainsuagoko beste artifizio batzuk, itxuraz, haizeak, urak, existentziaren ufada arinak mugitzen ditu, baita atsedenean egonda ere —itxuraz, horrela egiten du dar-dar «L'Últim sopar» lanak—. Bere proposamen askotan, esparruak sortzeko asmoa antzematen da: kutxa horiek, lehen bertsioetan, apenas iradokita-ko minaren irudiak itxi zituzten, eta geroago hutsik agertu ziren, inguratzen dituen airerantz zabalik, beren emozioen materia askatuko balute bezala itxaropen berri baterantz, esaterako, 1992ko «Once diecinueve quince»

lanean. Gero, proposatu zituen sarek edo saretez itxitako esparruak, aukera ematen dutenak beren materia iragazkorrek formak arin ditzan, baita beste objektu batzuk ere, lurrerantz biratuz, bizkarra emanez, beren espazioa kartsuki gordetzen zutenak, barrutik ezerk ihes egin ez zezan, esaterako, 2005ean egindako «Stanley» egitura.

William Carlos Williams poetak XX. mendearen erdialdean idatzi zuen *Journey to Love* liburuko poema batean dioenez, gure garaia ulertzen saiatuz gero, ez genukeen gakoa aurkituko gertuko mendeetan, gure aurreko mendeetan, baizik eta aurreragoko garaietan, urrunago, «basatia-go eta ilunagoak» diren horietan. Iradokizun hori lagungarria izan daiteke interpretatzeko beti mugitzen ari den oraina, itxuraz aurrerantz ihes egiten duena, nekaezin, haren atzetik gabiltzala ahitzen gaituena. Agian, artearen norabide misterioetsuei aurre egiteko, iragan urrunago batera jo beharko dugu, jada itxita eta amaituta, ahaztuta ere dagoen batera, artearen historia aurkezteko erabiltzen den kate kausal eta logiko horren ordena hautsiz. Agian orainaren gakoak itxiztat eman genuen denboraren tolesduretan daude ezkutaturik. Orduan ikusiko genituzke obra hauek sustrai «basati eta ilunagoetan» ainguratuta, hala nola poetak proposatzen dituenak, bere artifizioak sortzeko eskubidea aldiro inauguratzen duen denborarik gabeko artearen iturrietan elikatuta.

Susana Solanoren arteari horrela galdetzea iradokitzailea da, behintzat; izan ere, irudimenaren ariketa libre bat proposatzen du, eta bere lanak aitzakia ematen digu berriz aztertzeko artearen historian izan dituen jarrerak, agindutako patua saihesten dituztenak. Orain ikusgai ditugun artelan hauek hobeto erakusten dute beren balioa inaugurazio-garai baten aurrez aurre jarrita, bertan gordetzen baita egileak egitura, material eta esanahi berrien bila eduki duen kezka hazi. Jarrera esna hori etengabe berritzen du bere konpromisoari eutsi ahal izateko: keinu zorrotza, benetakoa, garbia, bat-bateko zintzotasun irekia duena. Keinua horrek ez du zalantzarik ikasitako lerroak hausteko, horiek agortzen ari direla sumatzean. Susana

Solanok, une bakoitzean, bere esku artean irekitako obra-sail bakoitzean, argi erakutsi du norabide berriei jarraitu nahi diela, irudien indarra eta materialen adierazpena elikatzeko. Ildo horiek definitu dute tekniken eta egikeren hautua, eta batzuetan emaitzak ustekabekoak izan dira.

Susana Solanok batzuetan esan du gertu sentitzen duela lurra, oroitzapena, memoria eta haurtzaroko irudimena. Lurralde intimo horretatik haraago, bidaia askotan ibilitako beste lurralde eta leku batzuetara jotzen du, eta handik itzultzen da elkarrizketa bere munduarekin lotzeko. Zuhurtziaz hitz egiten du bere lanaz, bakardadea eta hausnarketa bilatzen ditu, errotik baztertzen du asmoaren indarra desitxuratzen duen erreterika. 1995eko ohar pertsonaletan, galdera hau egin zion bere buruari: "Zer eskatzen diot eskulturari?". Eta erantzun zuen: "haren irakurketan eta prozesuan berehalakoa ez izatea, eta nire baitan ezin argituzkoa dena mantentzea".»

Marta Llorente, Llessui, 2023ko iraila









*Encima de alfombra*, 2000. Altzairu herdoilgaitza eta alfombra. 223 x 140 x 120 cm.

*Montblanquet*, 1988. Burdina eta agregakina. 122 x 216 x 216 cm.





*Encima de alfombra*, 2000.  
Altzairu herdoilgaitza eta alfombra  
223 x 140 x 120 cm.







*Montblanquet*, 1988. Burdina eta agregakina. 122 x 216 x 216 cm.





*Montblanquet, 1988. Burdina eta agregakina. 122 x 216 x 216 cm. (xehetasuna)*





*Huella de rincón II*, 2023. Brontze margotua. 50 x 7 x 8 cm.



*Huella de rincón II, 2023*  
Brontze margotua  
50 x 7 x 8 cm.



*Once-diecinueve-quince*, 1992. Burdina. 16 x 290,5 x 197,5 cm.





*Once-diecinueve-quince*, 1992. Burdina. 16 x 290,5 x 197,5 cm.



(goian)  
*Once-diecinueve-quince*, 1992 (xehetasuna)  
Burdina  
16 x 290,5 x 197,5 cm.

(eskuman)  
*Olor de Cendra I*, 2022  
Altzairu herdoilgaitza  
61,5 x 19 x 18,5 cm.













(goian)  
*Kapokier*, 1997  
Ehun metalikoa eta pintzak  
62 x 192 x 133 cm.

(ezkerran)  
*Lo visible II*, 2009-10  
Aluminio magnesioa  
186 x 85 x 79 cm.





*Kapokier*, 1997. Ehun metalikoa eta pintzak. 62 x 192 x 133 cm.









*Esfinx II*, 1983. Burdina. 15 x 86 x 75 cm.





*El lugar donde volvió, 1998. Burdina. 90,5 x 271 x 371 cm.*









*La negación*, 2001. Aluminio magnesio. 158 x 212 x 153 cm.





*La negación*, 2001. Aluminio magnesioa. 158 x 212 x 153 cm.







*Footprints n°2*, 2014. Altzairu erdoilgaitza. 98,5 x 180 x 55 cm.



*Footprints n°1*, 2014. Altzairu erdoilgaitza. 85,5 x 180,5 x 55 cm.








*Huella de rincón I*, 2023. Brontze margotua. 22 x 15 x 7,5 cm.





*Mueca nº5, 2016. Altzairu erdoilgaitza. 38 x 132 x 5,5 cm.*







*Rock and roll*, 1999. Ehun metalikoa eta beira. Neurri aldakorrak. (zehetasuna)





*Rock and roll*, 1999. Ehun metalikoa eta beira. Neurri aldakorrak. (xehetasuna)









*Rock and roll*, 1999. Ehun metalikoa eta beira. Neurri aldakorrak.



# CarrerasMugica

[www.carrerasmugica.com](http://www.carrerasmugica.com)

[info@carrerasmugica.com](mailto:info@carrerasmugica.com)

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO  
T. +34 944234725